

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Euskara ikasteko 2019ko laguntza deialdia

Asparreneko udalbatzak, 2019ko apirilaren 4an egindako ohiko osoko bilkuran, onetsi zituen euskara ikasteko norbanakoentzako laguntzen deialdia arautzen duten oinarriak.

Bat etorri Dirulaguntzen Lege Orokorrak 9. artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, denek jakin dezaten eta interesdunek eskaerak aurkez ditzaten.

Euskara ikasteko laguntzen deialdia eta oinarriak

Deialdi honen xedea da euskara ikasteko norbanakoentzako laguntzak ematea.

Deialdiaren arauak dira: oinarri hauek eta dagokien udal ordenantza; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Asparreneko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; bai eta beste hauen arabera ere: eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

1. ARTIKULUA. Deialdiaren xedea

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen xedea da euskara ikastaroak eginez euskara ikasteko norbanakoentzako laguntzak ematea.

2. ARTIKULUA. Pertsona eta entitate onuradunak

1. Laguntzen pertsona eta erakunde onuradun izango dira ikastaro hasieran zein amaieran Asparreneko udalerrian erroldatuta dauden pertsona fisikoak, gainera betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Izena ematean 16 urte baino gehiago edukitzea.

b) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako ikastegi eta ikastaroren batean matrikulatuta egotea. "Hala ez bada, aipatutako euskaltegietako ikastaroen matrikulak hartuko dira aintzat; hain zuzen ere, ezaugarri bertsuak dituen matrikularik garestiena."

c) Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Edonola ere, ikastaroetarako baino ez da emango dirulaguntza. Ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.

d) Hautatutako ikastaroa helduen euskalduntze edo alfabetatzeko curriculumeko maila baten parekoa izango da gutxienez.

e) Bermatu beharko da gutxienez ikastaroan eman diren orduen ehuneko 80 jaso direla edo, kasua denean, normalkuntzako teknikariaren ziurtagiria aurkeztu, ikastaroko errendimendua egokia izan dela dioena.

f) Euskara ikasteko beste dirulaguntzaren bat (Merkataritza Ganbera, HABE...) eskatuta edukitzea, horretarako aukera izanez gero.

Langabezian daudela egiaztatzen dutenek, euskara ikasteko aurkezten dituzten laguntza eskaeretan, ez dute zertan bete b) eta f) idatz zatietan ezarritako baldintzak eskaera egiteko unean; hala ere, ikastaroa amaitzean baldintza horiek bete dituztela frogatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, dirulaguntza berresteko eta, hala badagokie, zenbateko zehatza finkatzeko.

2. Ez dira onuradun izango azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotzen diren egoeraren batean daudenak.

3. ARTIKULUA. Aurrekontu zuzkidura

2018rako aurrekontu zuzkidura 6.000 eurokoa da, 335.480.001 aurrekontu aplikaziokoa.

Udalaren laguntza hauek bateragarriak dira pertsona onuradunek jaso ditzaketan beste batzuekin; hala ere, udalaren laguntzaren zenbatekoa ezin da izan, bakarrik nahiz beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, egindako jardueraren defizitaren kostua baino handiagoa.

4. ARTIKULUA. Dirulaguntzen zenbatekoa eta horiek emateko irizpideak

a) Langabezian edo ikasketa ofizialak egiten egonez gero, eta 25 urte baino gutxiago eduki, matrikularen zenbateko osoa jasoko du eskatzaileak, araudian ezarrita dagoen gehienezko zenbatekoa baino gehiago ez bada. Gehiago bada, ezarritako gehienezko zenbatekoa jasoko du.

Langile bat aldi baterako kontratatuta badago, eta bere lanaldia lanaldi osoaren ehuneko 40 baino gutxiago bada edo langabezian egon bada ikastaroaren iraupenaren ehuneko 60an, langabetu gisa hartuko da. Ehuneko horiek gainditzen baditu, langile aktibotzat joko da.

b) Gainerako kasuetan, matrikula osoaren ehuneko 75 ordainduko zaio, zenbatekoa araudian ezarrita dagoen gehienezko zenbatekoa baino gehiago ez bada.

c) Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa:

a. Ikastaro arruntak (2-3 ordu eguneko) eta on line ikastaroak: 600 euro ikasturteko (urria-iraila).

b. Barnetegiak eta ikastaro trinkoak (gutxienez 5 ordu eguneko): 950 euro ikasturteko (urria-iraila).

c. Eskatzaileak beste erakunderen baten laguntza jasotzen badu eta laguntza hori araudiak xedatutakoa baino gutxiago bada, Asparreneko Udalak ordainduko du aldea.

Norbanakoentzako laguntzen muga izango da dagokion aurrekontu aplikazioan jasotakoa eta kontuan izango da, bereziki, beste erakunde edo organismoen laguntzarik jaso den.

5. ARTIKULUA. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkeztu behar dituzte:

a) Eskaera orria.

b) Euskaltegiaren agiria, ikastaroaren ezaugarriak (hasiera eta amaiera egunak, asistentziari buruzko datuak, aprobetxamendua...) jasotzen dituenak.

c) Langabezian egonez gero, egoera horretan egon deneko aldia egiaztatzen duen agiria. Ikasketa ofizialak egiten egonez gero, ikastetxearen egiaztageria. Kontratua lanaldiaren ehuneko 40 baino gutxiagokoa bada, horren egiaztageria.

d) Beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa egiaztatzen duen agiria.

e) Eskatzailea Gizarte Segurantzako betebeharreran eta zerga betebeharreran egunean dagoelako ziurtagiria. Halakorik ezean, zerga betebeharreran egunean dagoelako zinpeko aitopena aurkeztu behar da. Ziurtagiri horiek eskatu egin ahal izango dira, egoki iritiz gero.

f) Matrikularen ordainagiria.

Langabezian daudela egiaztatzen dutenek, 2017an egindako euskara ikasteko matrikuletarako aurkezten dituzten laguntza eskaeretan, ez dute zertan erantsi asistentziaren eta aprobetxamenduaren ziurtagiria, ez eta e) eta g) idatz zatietakoa; hala ere, ikastaroa amaitzean frogagiri horiek aurkeztu beharko dituzte, dirulaguntza berresteko eta, hala badagokie, zenbateko zehatza finkatzeko. Horiek egiaztatzen ez badira, emandako laguntzak itzuli egin beharko dira.

6. ARTIKULUA. Eskabideak aurkezteko epea

Aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da. Egun horren ostean aurkezten diren eskaerak hurrengo ekitaldiko aurrekontuan sartuko dira.

Agiriak Asparreneko Udalaren sarrera erregistro orokorrean aurkeztu behar dira, edo legez onartuta dauden bideetatik.

Eskaerak baldintza guztiak betetzen ez baditu, pertsona edo erakunde interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala, hamar egun balioduneko epean, bat etorri Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoarekin.

7. ARTIKULUA. Emateko eta ebazteko prozedura

Normalkuntza teknikariak txostena egingo du laguntza eskaeren gainean eta organo eskudunak emango du dagokion ebazpena, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean, beranduenik. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute eskaera ezetsi egin dela.

Ebazpenean, baiezkoa bada, datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko era, aurkeztu beharreko agiriak eta zein baldintzatan ematen den; gainera, onuradunei jakinaraziko zaie, indarrean dagoen legerian jasotakoaren arabera.

Dirulaguntza eman edo ezesteko ebazpena indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaie eskatzaileei.

8. ARTIKULUA. Dirulaguntzak ordaintzea

Behin pertsona edo entitate interesatuei jakinarazita behin betiko ebazpen proposamena, 30 eguneko epean ordainduko da dirulaguntzaren ehuneko 100, behin betiko ebazpena jakinarazi eta gero.

Onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza baliogabetzea ekar dezake, eta emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura aplikatuko da, Asparreneko Udalaren dirulaguntzen ordenantzan araututakoaren arabera.

9. ARTIKULUA. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan jaso ez denerako, hauek aplikatuko dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzen udal ordenantza; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

10. ARTIKULUA. Datu pertsonalen babesa

Bat etorri abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babesekoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategienak eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearenak, xedatutakoarekin, deialdi hau izapidetzeko bildutako datu pertsonalak Asparreneko Udalaren fitxategian jasoko dira, zeina sartuta baitago Asparreneko Udalaren datu pertsonalen fitxategien sorrera eta aldaketa arauan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Asparreneko Udalera jo behar da.

Era berean, deialdi honetara aurkeztu diren pertsonak baimena ematen diote Asparreneko Udalari egiazta ditzan beste organismo publiko batzuetan aurkeztutako agirietan emandako datuak.

Araia, 2019ko apirilaren 8a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ